




Galletas OLIBET Renteria - Vista general de la Fábrica



"Olibet" gailera fabrikaren instalazioak, tren-geltokiaren ondoan, erakusten dituen posta-txartela. EUA A080F134.

Galleteroak: izengoitiak eta ezizenak!

Itziar Gomez Sarasola

Askotan gertatzen da herri batean esatea norbaiten izen-abizenak eta inork gutxik jakitea nori buruz ari garen, baina esan *Sugegorria* edo *Kaxkurrio* eta orduan bai, orduan konturatzea noren inguruan ari garen.

Izengoitiak oso erabiliak izan ohi dira Euskal Herri osoan. Zehatzak dira, goitzenaren beraren esanahiak ere horretan laguntzen du. Gehienetan goitzenak etortzen dira bizilekutik, familiatik, lanbidetik eta askotan naturatik.

Akordatzen naiz nola gure aitona denei jartzen zien goitizena, haren hizkerak etengabeko umorea eta ironia erakusten zituen. Artista zen edozeini goitizena jartzen. Bat izango zen *azaburua*, bestea *oilo zaharra*, hurrena buru *txikia*, bazuen bertso sena edozein pertsona birbataitzeko. Euskarak beti izan du berezkoa hitz jokoan. Aspalditik erabili izan ditugu goitzenak; nork ez ditu entzun? Herritarren artean deitzeko, herri batekoak beste herrikoei buruz aritzeko. Herri bakoitzak izan ohi du bere ezizena.

Errenteriarrak, adibidez, *galleteroak* gara. Zergatik? Errenteriako industria garrantzitsuenetako bat *Olibet* gailera fabrika zelako, hortik dator *galleteroak* ezizena.

Errenteriako bista jenerala Altamiratik, *Olibet* gailera fabrika ikusten da. 1960. EUA A039F026.



Bai, Euskal Herriko herri askok du bere ezizena eta askotan animalia izena. Hona Gipuzkoako hainbat herriren goitzenak:

AbaltzisketanTxahalburuk
 Albizturren.....Kunplituak
 Alegin.....Txintxarrik
 Alkizan.....Oiloak
 AltzaganZakurrak
 AltzonTipulek
 Amezketan.....Elbik



Olibet gailera kartel iragarkia. EUA A081F066.

Andoainen	Hontzak	Idiazabalen	Axerik
Anoetan	Kukuak	Ikaztegieta	Madriltxikik
Asteasun	Tranpazuloak	Itsasondon	Ijitek
Ataunen	Otsoak	Hondarribin	Bikingoak
Azkoitin	Xakelak/Igelak	Lazkaon	Antzarrak
Azpeitin	Zapoak	Leaburun	Txalburuak
Baztanen	Astoak	Legazpin	Ilintxak
Beasainen	Bareak	Legorretan	Pikuk
Bedaion	Makilek	Lezon	Trapujaliak
Beizaman	Makilak	Mutrikun	Lapazorrixak
Bergaran	Mokoloak	Olaberrian	Dotorek
Deban	Tarinak	Oñatin	Txantxiuak
Donostian	Koxkeroak	Ordizin	Azak
	(San Bizentekoak)	Orendainen	Eltxoak
	Joxemaritarrak	Orion	Ijituak
	(Santa Mariakoak)	Ormaiztegin	Harrikalarik
	Ñoñostiarrak (erdikoak)	Seguran	Zopajalek
Eibarren	Xapu harritsuak	Tolosan	Zuriak
Errezilen	Akerrak	Zaldibin	Arkakusok
Ezkio-Itxason	Otamotzek	Zarautzen	Haizeak
Gabirin	Makilarik	Zegaman	Beleak
Gaintzan	Zapok	Zerainen	Saguak
Getarin	Lapajaleak	Zumarragan	Otamotzak



Luzea da zerrenda, bai, lehen denek zekiten herri bakoitzaren izengoitia, baina ohitura hau ere galtzen ari da. Hitz egiteko garaian umorea eta sena itzaltzen ez ote doazen. Asko aipatzen zaigu zeinen garrantzitsua den sormena, ideia onak behar ditugula, gure estilo propioa. Eta gero eskolak eta hedabideek euskara jakin bat bultzatzen dute eta horrek euskara nolabait leuntzea dakar. Ondorioz, gero eta berdintsuago hitz egiten dugu denok. Gertatuak gertatu, ez ditzagun gorde gure aurrekoen hitzak kutxan giltzapetuta, eta eman diezaiegun bide gure mingainean *laineza, ez-kailu, kankailu* eta antzekoei.

Olibet gaileta iragarkia. EUA A081F035.